



Alboka abesbatzaren emanaldi koloretsua.- San Pedro jaien aurrekariaren egitarauaren baitan, Alboka abesbatzak emanaldi polita eskaini zuen larunbat arratsaldean Brigitarren komentuan. Errepertorio zabala eraman zuten bertara. Adibidez, eliz abestiak. If ye love me, Xabier Sarasolaren Ave Maria eta Ubi Caritas, Amaia Dorronsorok pianoan lagunduta. Polifonia ere bai: Set me as a seal, Esta tierra Gracias a la vida, Imbakwa pianoa eta perkusio lagun, perkusioan Carolina Muñoz aritu zelarik. Euskal doinuak ere ez ziren falta izan, Ken Zazpiren Itsaso gara eta Maiteak galde egin zautan interpretatu baitzituzten. Kontzertuari amaiera koloretsua eman zioten, festa-osagarriak soinean, Eurovision lehiaketako 60 eta 70 hamarkadako giroa ekarriz Brigitarren komentuko kaperara. Mucedadesen Eres tu, Masielen Lalala edo ABBaren Waterloo entzun ahal ziren. Abestien moldaketa egin zuen Javier Gonzalez Sarmiento pianoan lagun izan zuten.

3 KULTURA

'Kultura auzoetara' ekimena martxan

Lasarte-Oriako Udalak 'Kultura auzoetara' programa aurkeztu du. Honen bitartez, ekaina eta uztailean astero, San Pedro Jaietan izan ezik, ekintza kulturalak eramango ditu aurrera Atsobakar, Oria, Zumaburu, Sasoeta eta Zabaleta auzoetan. Ipuin kontalariak, tailerrak edo argazki rallya izango dira udan hurrek aspertzeko astirik izan ez dezaten.

4 KULTURA

Kukukak Dantzaz blai amaitu zuen hamabostaldia

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideek ongien dakitena eginez eman diote amaiera hamabostaldiari: Manuel Lekuona kultur etxeko oholtza gainean ikasturtean zehar ikasitakoa plazaratzen. Atzoko egunean zehar Euskal Dantza eta Euskal Dantza Sorkuntza taldeetako kideek eskaini zituzten emanaldiak.



5 JAIK

San Joan sua, udara ospatzeko usadioa

Ostegunean, San Joan egunaren bezpera dugu. Honean, ohiturei jarraikiz, San Joan sua piztuko da Lasarte-Orian. Aurten Andatza plazan izango da berriro ere errotua. Aurretik, Erketz EDTk Zero Sette akordeoi orkestraren eta Alboka abesbatzaren laguntzaz San Joan bezperako dantzak eskainiko ditu, guztia udal ordezkari eta herritarren begiradapean. Badator udara Lasarte-Oriara.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria · Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

ISLANDIA

aurora borealak
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

BIDAIA TALDEAN
irteera Lasarte-Oriatik
Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

GIZARTEA

Hozkailu solidarioa Manuel Lekuonan

Nahi duenak janaria utzi edota hartu dezake; helburua janaria ez botatzea da

Estatu mailan jartzen den 9. hozkailu solidarioa da Manuel Lekuonakoa. Galdakaon hasitako ekimena, herrian aurkeztu zuen Javi Goikoetxea sortzaileetako batek udaleko ordezkariekin batera. Etxean soberan geratzen den janaria aurrerantzean bertan utzi eta behar duenak etxera eraman ahal izango du.

Gizarte zerbitzuetatik bultzatuta, hozkailu solidarioa iritsi da Lasarte-Oriara.

Ekimena Galdakaon jaio zen Alvaro Sainzen burutazio batengatik. Javi Goikoetxeak azaldu zuenez, laguna etxe zein taberna edo jatetxeetan sobratzen den janariarekin zer egin hasi zen pentsatzen eta hozkailu bat kalean jartzea bururatu zitzaion. "Bertan soberakinak utzi eta behar zuenak hartzeko". Ekimenak harrera ona izan zuen eta estatuan hainbat lekutan jarri dira dagoeneko hozkailuak.

Goikoetxeak azaldu zuenez, edonork erabili dezake hozkailua janaria utzi edota hartzeko. "Ekimenaren helburua kontsumo jasangarriago bat egitean datza, azkenean, etxeetan, taberna

zein jatetxeetan, kontsumo orekatu bat lortzea gure gizartearen".

Eskoletan lanketa

Lourdes Acevedo gizarte zerbitzuetako zinegotziak azaldu zuen eskoletan ekimenaren inguruko lanketa berezia egingo dela irailan: "Orain esku orria etxera eramango dute umeez eta irailan kontsumo jasangarriaren inguruko lanketa egingo dute komiki berezi baten bidez".

Herritarrak animatu zituzten hozkailua erabiltzera, beti ere, zintzo jokatu. "Orokorrean hozkailuek oso harrera ona izan dute eta ez da inon arazorik egon. Espero dugu Lasarte-Oria ere hala izatea".

Acevedok azpimarratu



Aurkezpen egunean hainbat jaki utzi ziren hozkailuan halalik eta lasterren erabiltzen hasteko.

zuen hozkailua herrian jarriko zela berehala zabaldu eta hainbat taberna eta jatetxeetako jabeak harremanetan jarri zirela udalarekin bertan euren sobakinak uzteko asmoarekin. Udalak herriko ostalariekin bilera egitea aurreikusten du ekimena azaltzeko eta ez da bazter-

tzen parte hartzen dutenen artean, pegatina bat ematea entitate kolaboratzaile bezala bereizteko.

Janaria uzteko baldintzak

Erabilera baldintzei dagokionean, ezingo dira arrautzak edo haragi gordina utzi. Prestatutako janaria behar du izan

ona dagoela bermatzeko, ontzi gardenetan utzi behar da zer den identifikatu ahal izateko eta data gainean jarri beharko da.

Hotz katea garraiatzeko orduan mantendu beharko da edota gehienez 30 minutu eduki janari hori giro tenperaturan.

Buruntzaldea ere zutitu da

Maiatzaren 29an Donostiako Gipuzkoa plazan jaiotako 'Gipuzkoa Zutik' ekimena etengabe ari da zabalzen. Baita eskualdetara ere: Buruntzaldea iragan ostegunean zutitu zen, Okendon egindako lehenengo asanbladan. Lasarte-Oria eta inguruko herrietako hainbat pertsona elkartu ziren plazan, 16:30ean. Ertzaintzako pare bat agente Askatasunaren plazara gerturatu ziren, eta, zenbait minutuz bertan egon ostean, joan egin ziren.

Asanbladako kideek adostu zuten talde txikitxo batzue-

tan biltzea, zenbait ideien inguruan iritziak entzun, jaso, eta, berriz elkartzean, partekatuz eta eztabaidatzeko. Eskualdeko herrien arteko koordinazioa eta taldeak zein borroka-fokotan parte hartuko duen eta zeinetan ez, gai horiek hartu zituzten hizpide.

Ordu erdi inguruz solasean aritu ostean, berriro elkartu eta taldetxoetan jasotako ideiak plazaratu dituzte.

Asteburuko ekintzak

Errausketaren aurkako protestek ez dute izan etenik asteburuan. GuraSOS taldeak

atzo goizerako deitutako mar-txa beltzari hainbat herritako biztanleek erantzun zioten, baita lasarteoriarrek ere. Antiguako Tuneletik hasi eta Alderdi Ederrera iritsi bitartean, egitasmo horren kontrako aldarri ugari entzun ziren.


Gipuzkoa Zutikek kideek ere antolatu zituzten hainbat ekintza. Larunbat arratsaldean Zubietara joan ziren bizikletaz, eta arratsalde zein gauean hainbat ekitaldi jendetsu egin. Bestalde, atzo, Donostian asanblada egitear zirela, Ertzaintzako agenteek hainbat kide golpatu zituztela salatu zuten.



Ostegun arratsaldean egin zuen lehenengo asanblada Buruntzaldea Zutikek.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA

Kultura, auzoz auzo

Asteburuan hainbat ekintza egingo dira Atsobakarren

Lasarte-Oriako Udalak 'Kultura Auzoetara' programa jarri du abian. Duela pare bat aste hasi zen, Orian. Asteburu honetatik aurrera hartuko du martxa berriro egitasmoak; Atsobakarren egingo du bigarren geldialdia, ostirala eta larunbata bitartean; ipuin kontalariak eta eskaiola maskaren tailleraz gozatuko dute. Ekain bukaera eta uztail osoan zehar, beraz, auzoz auzo ibiliko da herriko kultura.



Udal ordezkariak, ostiral goizeko aurkezpenean.

TXINTXARRI

Atsobakarren egingo du bigarren geldialdia Udalaren 'Kultura auzoetara' programak, asteburu honetan. Ostiralean, hilak 24, Lur Usabiaga ipuin kontalaria ariko da Semblante Andaluzen egoitzan, 18:00etan. 3 eta 7 urte bitarteko umeei zuzendutako istorioak plazaratuko ditu. Larunbatean, berriz, eskaiolaz egindako maskaren tailler bat egingo dute, Golf plazan, 11:00etatik aurrera.

Orian egin zuen lehenengo geldialdia, duela bi aste. Lur Usabiaga aritu zen ipuin kontalari lanetan La Esperanzako auzokide elkartearen; ondoren, Udala Musika Eskolan gitarra klasikoaren ikasten ari diren zenbait pertsonak kontzertua eskaini zuten Karmengo Amaren Kapera.

Uztail osoan zehar

Atsobakarretik igaro ostean, berriro ere Oriara itzuliko da 'Kultura auzoetara'. Uztailaren 9an, larunbatarekin, argazki rally bat egingo dute La Esperanza auzokideen elkartearen, 11:00etan hasita. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, argazki kamera eramatea beharrezkoa da.

Uztailaren 15ean eta 16an Zumaburura iritsiko da kultura. 15ean, ostiralean, Lur Usabiaga ariko da 3 eta 7 urte bitarteko haurrei ipuinak kontatzen, Isla Plazan, 18:00etan hasita. Hurrengo egunean berriz, globoflexia tailleraz gozatu ahalko dute herriko gaztetxoek plazan bertan.

Eta, Zumaburutik, Zabaleta: uztailaren 22 eta 23an bertan garatuko da 'Kultura auzoetara'. Lur Usabiagak

ipuinak kontatuko ditu orduko horretan ere, 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzako, 18:00etatik aurrera, Antonio Blas plazan. 23an, birziklatutako diruzorro tailler batean parte hartu ahalko dute auzotarrek gunere berean. Antolatzaileek zehaztu dutenez, bitrabrik eramatea beharrezkoa da.

Uztailko azken geldialdia Sasoetako izango da, uztailaren 29 eta 30ekoa. 29an Lur Usabiagaren istorioak entzungo dituzte gaztetxoek 18:00etatik aurrera Jaizkibel Plazan, eta, 30ean, fruten tailler bat egingo da plaza horretan bertan.

Udalaren Kultur Zerbitzuak herritarrek gonbidatzen ditu hurrengo asteetarako antolatutako ekintzetan parte hartzera.

UDALA

Ez dira altzariak jasoko festak direla eta

Datorren astean, San Pedro jaiak direla eta, ez da altzariak biltzeko zerbitzurik izango. Beraz, Lasarte-Oriako herritarrei eskatzen die udalak ez dezatela inolako altzaririk atera haiek uzteko ohiko puntuetara, ez baitituzte hurrengo astera arte erretiratuko eta, hartara, arazo ugari sorraraziko baitzaizkie gainerako bizilagunei.

DANTZA

Muxikoak igandean

Igandean, ekainak 26, ohiko hitzordua mantanduko eta Muxikoen doinura hainbat dantza tradizional entsaiatzeko aukera izango da Okendo plazan 12:00etan.

ZABALETA

Gamusino gaua bihar

Ostiralerako aurreikusita egon arren, eguraldi txarra medio, bertan behera utzi zen. Horrela izanda, bihar astearte 21, egingo da Gamusino gaua. 20:30etatik aurrera, kanpin denak jarriko dira Antonio Blas plazan. 21:30ean, afalduko da. 22:30ean, gamusinoen bila joango dira eta 23:30ean guztiak lotara joango dira. Goizean, gosari gozo-gozoa dastatu ahalko dute guztiek. Adin guztietako haur eta gazteek parte hartu dezakete ekintzan. Hala ere, haur txikiak gurasoren batez lagunduta parte hartu dezaketela jakitera eman dute.

Afaria norberak bere etxetik eraman behar duela eta bestetik, gamusinoen bila joateko haurrek zartagina, koilara, linterna eta mendirako arropa eroso behar dutela esan dute antolatzaileek.

PALA

Gaur arratsaldean hasiko da Santa Anako pala txapelketa, Loidibarrenen

Pala hotsak bueltatuko dira Loidibarrenen gaur arratsaldetik aurrera, hastear baita Santa Ana pala txapelketa. Aurtengo edizioan bederatzi bikotek hartuko dute parte, bi taldeetan banatuta. A taldean lehiatuko dira J. Iparragirre-L. Bautista, X. Arteaga-B. Esnaola, J. Pagola-J. Ferrero eta B. Odriozola-J. Altzibar bikoteak. B multzoan berriz, honako hauek: X. Astiazaran-I. Arluziaga, G. Iturbe-J. Arabaolaza, J. Uzkudun-G. Arteaga, M. Begiristain-J. Begiristain eta A. Iparragirre-E. Aranburu. Itzuli bakarrera jokatu dute; ligaxka bakoitzeko bi bikote onenak sailkatuko dira txapeladun faserako.

Gaur arratsaldeko partiduak: J. Iparragirre-L. Bautista/ J. Pagola-J. Ferrero eta X. Astiazaran-I. Arluziaga/ J. Uzkudun-G. Arteaga. 18:30etik 20:30era jokatu dute.

Elkarbizitzaren inguruko hausnarketa saioa

Larunbatean izango da Elkarbizitzaren seigarren ikastaroa Villa Mirentxun. 11:00etatik aurrera, 'Irakurketa filmikoak 2' jardura gauzatuko da eta honen baitan, 'Reconciliación' dokumentala ikusi eta aztertu.

Jardunaldia 'Reconciliación' dokumentalaren proiektioarekin hasiko da eta talde dinamikaren bitartez garatuko da saioa antolatzaileek azaldu moduan. Ikastaroan parte hartzeko izena ematen dutenei, dokumentalean agertzen diren elkarrizketen transkripzioa alde aurretik bidaliko zaizkie. Izan ere, "etorkizuneko bizikidetzari begira, filmean ageri diren testigantzak eta irakaspenak aztertzea litzateke jardura honen helburua".

'Reconciliación' dokumentala, Juan Maria Uriarte,



Azaroan Ganbo Iturriren egoitzan egin zen saioa.

Donostiako gotzaina izandakoaren liburuan oinarrituta dago. Fermin Aiok zuzendu duen film honek ETaren, GALen zein polizia indarkeriaren ekintzez hil diren senideen testigantzak biltzen ditu, elkarren artean dituzten elkarrizketak jasoz.

Samina, ulertezintasun sentimendua eta bakardadearen gainean aritzen dira solasal-

dietan. Baita galera horrek sortu dien hutsari buruz, baina batez ere, etorkizuneko behar den bakeko elkarbizitzari buruz hitz egiten dute.

'Ikastaroaren izaeragatik', taldeko saio honetan parte hartzeko plazak mugatu ditu eta izena emateko epea ekainaren 23an bukatuko da. Izen emateko, ganboiturri@gmail.com-era idatzi behar da.



Atsobakar egoitza handitzeko lan hitzarmena sinatu da

Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak eta Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak Atsobakar herriko adinekoen egoitza handitzeko lan hitzarmena sinatu dute. Peña diputatuak sinadura honen garrantzia azpimarratu zuen: "Gipuzkoako egoitzen ereduaren diseinuan aurrera egin nahi bada, beharrezkoa da erakundearen arteko elkarlana sustatzea eta

sinadura hau beste urrats bat gehiago da bide horretan".

Atsobakar egoitzak egun, 57 plaza ditu egoitzan bertan eta beste 25 eguneko zentroan. Baina beharra handiago dela ikusita, egoitza handitzeko zela aukera dau den aztertuko da eta azterketa hori bi erakundeek elkarlanean hastea adostu dute. Egoitza handituta, itxaron zerrendak arinduko dira.

Antzerkiaren eta dantzaren festa

Iragan asteburuko emanaldiekin amaitu da Kukukaren hamabostaldia

Dantzaz blaituta bukatu da Kukukaren hamabostaldia. Euskal Dantza eta Euskal Dantza Sorkuntza taldeetako ikasleek aurten landutakoa oholtzaratu zuten atzoko egunean Manuel Lekuona kultur etxean. Aipatutako horiek, ordea, ez dira izan bukatu berri den asteburuko emanaldi bakarrak. Larunbatean Dantza Garaikidekoen txanda izan zen, eta, ostiralean, helduen Antzerkikoena.

TXINTXARRI

Beste urte batez, amaierara iritsi da Kukukaren Antzerki eta Dantza astea. Eskola horretako ikasleek urtean zehar landutako antzerki eta koreografiak plazaratu ohi dituzte ekainean, eta horrela izan da aurten ere. Pasa den asteburuko emanaldiek biribildu dute aurtengo edizioa.

Atzoko egunean zehar Euskal Dantza eta Euskal Dantza Sorkuntzako taldeak aritu ziren Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzaratu gainean, goizean eta arratsaldean hurrenez hurren.

Euskal Dantzako ikasle gaztetxoek hainbat dantza tradizional plazaratu zituzten. Esaterako, 'Kolpe, kolpe kolpeka' ezaguna, guraso eta lagunen gozamenerako.

Arratsaldean Euskal Dantza Sorkuntzakoek euren trebezia erakutsi zuten oholtzaratu gainean, 'Dantzaz Blai!' egunari eta Kukukaren hamabostaldia amaitu zuten.

Larunbat arratsaldean kultur etxera gerturatu zirenek Dantza Garaikideko ikasleen koreografiekin gozatu zuten. Emanaldi benetan deigarriak izan ziren: aterki koloretsuak eskuetan hartuta dantza egin zuten talde batek, Esne Beltzaren doinuekin beste batek, 'Uptown Funk' abesti ezaguna ere entzun ahal izan zen... Koloretsuak eta originalak izan ziren denak.

Ostiralean, antzerkia

Ostiral arratsaldean berriz, helduen Antzerki taldeek 'Itxaroten' lana oholtzaratu zuten. EGA azterketa prestatzen ari zen ikasle talde batzuen idazlanetatik abiatuta, genero berdintasunaren gaia jorratzen du lanak. Ikusle ugari gerturatu ziren Manuel Lekuona kultur etxera, eta ez ziren inolaz ere damutu, ikasleek lan paregabea egin baitzuten oholtzaratu gainean. Horren ordainetan, txalo zaparrada luzea jaso zuten amaieran. Orain, hurrengo urtera arte itxaron behar.



Dantza Garaikideko talde honek 'Uptown Funk' abesti ezaguna interpretatu zuen kultur etxean.



Euskal Dantzako ikasleak ederki aritu ziren atzo goizean; ostiral arratsaldean, berriz, helduen Antzerki taldekoen txanda izan zen.



'BirziklaTu' egitasmoa Okendo plazan

Lasarte-Oriako gazte talde batek dinamizatuta eta Udalaren laguntzarekin, hainbat herritarrek ostiral arratsalde atsegina igaro zuten Okendo plazako arkupeetan. Egurrez egindako hainbat jolasetan aritu ziren, 'BirziklaTu' izeneko egitasmoaren baitakoetan.

Hezi Zerb elkartearen eta Educo Fundazioaren elkarlanean jaio zen aipatu egitasmoa, duela zenbait urte. Gipuzkoako hainbat udalerritan egiten dute lanketa. Gure herriaren kasuan, egurrekin eskuz egindako jolasak joratu dituzte 12 eta 16 urte bitarteko sei gaztek.

Ostiralean eurek dinamizatu zituzten jarduerak. Hainbat jolas jarri zituzten aukeran: snooker holandarra, lehorretako curling-a, XXL mikadoa eta baita gazteek beraiek asmatutako 'billar-golf' delakoa.

Udalaren esanetan, "gazteen artean balore positiboak sustatzea" da helburua.

Motor hotsak herrian

Hamarnaka Vespa eta Lambretten motor hotsak izan dira nagusi herrian bukatu berri den asteburuan. Euskadiko Scooter elkarteak antolatuta, SC Rallyaren bigarren edizioaz gozatu dute lasarte-erriarrek ostiraletik igandera.

Eguraldi kaskar samarra egin du asteburu osoan, baina hori ez da oztopo izan egitaraua aurrera eraman ahal izateko. Ostiral arratsaldeko euri zaparradek eragin zuten Jaiz-

kibel plazako erakusketa ez izatea espero bezain koloretsua, baina zenbait motor ikusi ahal izan ziren, dena den. Gaueko Buenetxeako kontzertuak arrakastatsuak izan ziren.

Larunbat goizean Okendon erakutsi zituzten motorrak. Arratsaldean berriz, Andapa kalean. Gauean, kontzertuak berriro ere Buenetxean. Azkenik, atzo goizean zehar Golf plazan egin zuten erakusketa.



Larunbat goizean zehar Okendon ikusi ahal izan ziren vespa eta lambrettak.

San Joan sua Andatzan

21:30ean abiatuko da kalejira udaletxe zaharretik

Ostegunean, iaz bezala, Andatza plazan egingo da San Joan suaren inguruko jaia. Udaletxe zaharretik aterako da kalejira Erketze EDT-ko dantzari eta musikariek. Plazara iritsita, San Joaneko zortzikoa eta soka-dantza eskainiko dira sua piztu aurretik. Honetan parte hartuko dute Alboka abesbatzak eta Zero Sette akordeo orkestrak.

TXINTXARRI

Lasarte-Orian ondo errota dago San Joan suaren ohitura, eta, iaz bezala, jende andana bilduko da Andatza plazan egingo den suaren inguruko festara urteko gertaera eta oroitzapen txarrak sutara bota eta udari ongietorria egiteko.

San Pedro jaiak iristear daude, eta San Joan bezpera aurrekari ezin hobea da izan ohi da herritarrek jai giroan murgiltzen hasteko.

Egitaraua

Ostegunean gaueko hamarrak aldera piztuko da San Joan sua Andatza plazan. Kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatuko dira jendeak gauzak eta oroitzapen txar guztiak bertara bota bitartean.

Dantza eta musika 22:00ak baino lehenago hasiko dira. Erketz EDT dantza taldea, hainbat musikari eta udalbatzako kideekin batera plazara joango da kalejira egiten udaletxe zaharretik abiatuta.

Plazara iritsita, San Joaneko zortzikoa eskainiko du 21:30ean, gaueko ekitaldiei hasiera emanez.

Horren ostean, soka-dantzaren txanda izango da.

Erketz EDT-rekin batera, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette Akordeo orkestrak parte hartuko dute iaz egin bezala, hainbat doinueta dantzariak lagunduko dituztelarik.

Errito eta usadioak

Ezaguna da ohitura honen jatorri paganoa. San Joan suak Erdi Aroan hartu zuen izena, San Joan Bataiatzailearengatik. Usadioa Euskal Herriko bazter guztietara zabaldua dago eta plaza guztietan pizten da sua ekainaren 23an.

Gau magikoa delakoan eta ospakizun zaharra izaki, hainbat erritu eta usadio egin izan dira egun honen inguruan. Gure herrian ere bai.

Esan daiteke, alde edo moldez leku guztietan, hiru elementu agertzen direla beti tradizioan: ura, landareak eta sua eta ospakizunetan, berriz, dantza eta kantua dira nagusi.

Gurean ur bedeinkatua eta ur berria banatzen ziren baserri baserri, San Joan bezperan sua erre eta gero, adibidez. Era berean, San Joan egunean elorri zuria eta erramuarekin egindako gurutzeak edota adarrak jartzen ziren ate eta leihoetan, trumoietatik etxeak babesteko.

Hain zuzen ere, ohitura zahar horren jarraitzaile nekaezina izan da urte luzeetan Sebastian Kerejeta herritarra.

Erronka

Ttakuneko lehenengo lehenakariak, herriko hainbat leketan jarri izan ditu elorri zuria adarrak. Danok Kide elkartearen egoitzan, Michelingo kooperatiban, Ttakune-



Iaz Erketzeko lagunekin korporazioko hainbat zinegotzik dantzatu zuten soka-dantza.

ko egoitzan edota Jalgi Kafe Antzokian. Aurten ere ez du hutsik egingo eta Ttakun eta Jalgiko sarrerak dotore azalduko dira ostiralean, azken urteetan bi atari hauek mugatzen zen eta. Goizeko zazpiak jota, aurrez jasotako elorri zuria adarrak jarriko ditu zintzo.

Hala ere, adina dela eta, aurtengoa berarentzat azkena izango dela agindu du.

Kerejetak penaz utziko du lan hau izan ere, konturatuta dago azken urteetan herrian berak jarritako elorri zuria adarrak direla ikusten diren bakarrak eta pena handia eragiten dio jakiteak inork ez duela usadioarekin jarraituko.

Berak erronka bota nahi die herritarrei hau galdu ez dadin. Euren etxeetako atarrietan elorri zuria jartzera animatzen ditu. Herrietako parte ziren mota honetako usadioak galtzarekin batera, herri sena eta kulturaren parte txiki bat galtzen delako.



Ttakun eta Jalgiko ate eta leihoetan elorri zuria adarrak jarri izan ditu Kerejetak.

EPA LASARTE HHI

2016-2017 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Ekainaren 15etik 30era

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH/ESO)
- Erdi eta Goi zikloko Sarbide Proben prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat



Ordutegia:
11:00-13:00
(anbulategi gainean)

LOKE.-

Erakustaldiekin eta bazkariarekin agurtu du sasoi LOKEk

Kirolari, entrenatzaile, ordezkari eta guraso, 100 kideetik gora elkartu ziren atzo Araetan

LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkarteak Araeta jatetxean itxi zuen 15-16 denboraldia, atzo eguerdian. Era berean, asteburuan zehar judo eta gimnasia erritmikoko kideek erakustaldiak egin dituzte Udal Kiroldegian.

TXINTXARRI

Arrakastaz jositako denboraldia –beste bat– itxi du LOKEk asteburu honetan. Kirolari, entrenatzaile, arduradun eta guraso, 100 pertsonatik gora bildu ziren atzo Araeta jatetxean, aurten egindako guztia mahai baten bueltan gogoratuz, giro ederean. Bapo bazkaldu ostean, urtero lez, hainbat kirolarik sariak jaso zituzten euren entrenatzaileen eskutatik.

Judo alorreko arduradun Gorka Aristegi izan zen lehen mikrofonoa hartzen. Kategoriak, hainbat judoka atera ziren sari bila. Infantiletan, bi: Martin Sebastian eta Lucas Morales. Bi horien ostean, Ander Garrido kadetea, Jon Herrero, Eneko Eizagirre eta Fermin Balda jubenilak eta Josu Olmos eta Asier Sagasti seniorrak. Denboraldi paregabea burutu dute denek. Aipatutakoez gain, Jesus Curielek eta Yeray Mendibek ere jaso


zuten aitortza, hasieran ezarritako helburu guztiak bete ezin izan dituzten arren, urte osoan zehar euren kideei emandako laguntzagatik.

Tenisean, berriz, Eneko Fernandez izan zen saritua. Xabier eta Andrea Gonzalezek eman zioten saria.

Atletismoan Ane Galardi izan da saritua aurten. Amaia Andres arduradun eta klubeko lehendakariaren eskutik jaso zuen saria. Hunkigarria izan zen, Galardik kanpoan egingo dituelako ikasketak datorren urtetik aurrera.

Hunkigarria izan zen baita ere gimnasia erritmikoko sari banaketa. Angely eta Melanie Gonzalez ahizpak agurtu zituzten arduradunek; kanpora doaz bizitzera. Horiez gain, Aizpea Arroyo Euskadiko txapelduna ere saritua izan zen. Amaieran, hainbat argazki atera zituzten denek.

Bestalde, judo eta gimnasia erritmikoko kideek erakustaldiak egin zituzten Kiroldegian.



Aurten egindako lanagatik hainbat sari jaso zituzten LOKEko kirolariak, euren entrenatzaileek eskutatik.



Judo eta gimnasia erritmikoko alorretako kideek erakustaldiak eskaini dituzte asteburuan, Udal Kiroldegian.

BURUNTZALDEA.-

Buruntzaldeako 6. futbol topaketak herrian

Buruntzaldeako futbol topaketen aurtengo edizioa Lasarte-Oriako kirol instalazioetan jokatu da, hainbat berrikuntzarekin. Batetik, emakumezkoen futbol 8 txapelketa antolatu da lehenengoz; bestetik, kirol ekitaldi horretan parte hartzeko arauak ezarri dira.

Emakumezkoen futbol 8an, bi kategoriatako neurketak jokatu ziren Michelinen: infantil eta seniorrenak. Andoaingo Euskalduna izan zen nagusi infantiletan; seniorretan, berriz, Lasarte-Oriako Ostadar.

Areto-futbolari dagokionez, Lasarte-Oriako Izkiña nagusitu zen. Denboraldi bikaina burutu du talde horrek, herriko areto futbol txapelketa ere irabazi baitzuen maiatzean.

Partiduak jokatu eta gero, irabazleei sariak eman zizkieten Jose Mari Urdanpilleta zinegotziak eta Udaleko Kirol Teknikari Karlos Altunak.



Herrian jokatu dira Buruntzaldeako 6. futbol topaketak.

LABURRAK.-

Iñigo Ibarburu Gipuzkoako txapeldun Azpeitian, 1.500 libreetan; Irati Arzalluzentzat, brontzea



Buruntzaldea IKTko igerilariak bikain aritu dira asteburuan zehar Azpeitian jokaturako Gipuzkoako Udako txapelketan. Iñigo Ibarburu txapeldun izan zen 1.500 libreetan, 16:26.02ko marka eginda. Irati Arzalluzek berriz, brontzea erdietsi zuen 50 libreetan; 29.66 segundotan geratu zuen kronometroa.

Brontzea Maialen Chourrauentzat

Bukatu berri den asteburuan berriro ere Munduko Kopako proba bateko podiumera igo da Maialen Chourraut herriko piraguista. Oraingo honetan Paun (Frantzia) lortu du domina, brontzekoa –pasa den astean garaile izan zen Seu d'Urgellen jokaturako proban–.

Lasarteoriarrak 113.46ko denbora egin zuen atzoko finalean; Maria Zelia Lafont irabazleak baino bost segundo gehiago behar izan zituen proba burutzeko. Podiuma Jana Dukatova eslovakiarrak osatu zuen. Chourrautek beste behin erakutsi du sasoi betean dagoela; hurrengo erronka Riokoa izango da.



Agenda

Larunbata, 20:30ean, Okendo plaza



Zero Setteren doinuak plazan

Zero Sette akordeoi orkestraren kontzertua izango da. Jay Band formatuan, hainbat talde ezagunen abestiak eta bertsioak eskainiko ditu akordeoi taldeak. San Pedro jaietako kontzertuen aurrerari ederra izango da honakoa.

akordeoi oskestra eta Alboka Abesbatzaren laguntzaz. Ostean, sua piztuko da eta jaiak jarraituko du.

Dantza

OKENDO PLAZA

Larunbata, 19:00etan

Erketz EDT taldeak San Pedro jaien aurrerari den ikasurtea amaierako emanaldia eskainiko du.

Kultura auzoetara

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala, 18:00etan

Lur Usabiagaren eskutik ipuin kontalaria izango da. Doan.

GOLF PLAZA

Larunbata, 11:00etan

Eskaiola mozorroak egiteko tailerra izango da. Honetan parte hartzeko haurrek arropa zaharra eraman beharko dute.

Lasarte-Oria

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena eta asteartea, 19:00etan

Udal Musika eskolako kideek ikasturte amaierako emanaldiak eskainiko dituzte. Astearteko saioan, diploma banaketa izango da.

ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEA

Asteazkena, 18:00etan

Biyak Bat elkarteko abesbatzaren emanaldiaz gozatuko dute egoiliar eta familiek.



Gamusinoen gaua

ZABALETA AUZOA

Bihar

20:30ean, kanpinak montatu.

21:30ean, etxetik eramandako janaria afaldu.

22:30ean, Gamusinoen bila aterako dira parte hartzaileak auzoan zehar.

23:30ean, lotara joateko ordua izango da.

09:00etan, gosari gozoa dastatuko dute.

San Juan Sua

ANDATZA PLAZA

Osteguna 23, 21:30etik aurrera

San Juan bezperako ospakizunak izango dira. Udaletxetik Andatza Plazara paseoa egingo dute udal ordezkariak eta Erketz EDTko kideek. Zortzikoa eta soka-dantza dantzatu dute Erketz eta Erketzeko lagunak taldeko kideek, Zero Sette

Tailerra

MERCERO PLAZA

Astelehena 27, 17:00etan

Sorgin Jaien egitarauaren baitan, haurrentzako jolasak eta tailerrak izango dira.

Erakustaldia

KIROLDEGIA

Astelehena 27, 18:00etan

Tradizioa bilakatu den gimnastikako erakustaldia egingo dute Biyak Bat jubilatuen elkarteko kideek.

Herritarren txokoa

Eskutitza

EAEko Hezkuntza sailaren atek, leihoak eta itoginak

Larunbatean ireki zituen atek BECek eta beste behin ehundaka oposaketarik jokoan jarri zuten haien etorkizuna. Ateak ireki BECek eta atek ireki Hezkuntza Sailak bere etxean langileak sartu edo egonkortu daitezzen. Etxea, ikastetxea, ez da ordea denok nahiko genukeena. Itoginez beteta aurkitzen da eta ur jarria pixkanaka goraka doa.

Zer zentzu dauka bestela 600 plazara iristen ez den deialdi publiko batek, baldin eta 3.000 plazako murrizketa eman behar bada Espainiako Tribunal Konstituzionalaren epai bati men eta amen eginez? Prest gaude 50 irakasleko 8 irakasle gutxiago izango diren ikastetxeetan lan egiteko? Gure seme alaben irakaskuntza egoera honetan uzteko?

Non gelditzen da hezkuntzaren kalitatea baldin eta ikasleak hamar egunez irakasle gabe uzten baditugu?

Non pasako dituzte hamar egun hoiak? Liburutegian? Bada, 30 ikastetxetan 9 orduko laguntza kendu dute, ondorioz, liburutegiak itxiaz. Horrela sustatzen dugu irakurzaletasuna?

Liburutegirik ez, informatika gelara eramango ditugu? 2020rako ikastetxe guztien digitalizazioa egin nahi omen dute baina ez dago hau aurrera eramateko urteko plangintzarik. Sare Hezkuntza Gelan proiektuan parte hartzen duten ikastetxeei laguntza murriztu zaie (Lehen urtean 12000 euro, bigarren urtean 11000 euro, aurten ikastetxeei gehienez, 5000 euro emango dizkiete) Ez dakigu zer plan duen Hezkuntza Sailak konektibitatearekin, ezta ere WIFI aren ezarpenarekin. Gainera proiektu honen barnean ez dauden ikastetxeei IKT arduraduna kentzen diete Bretxa digitala handituz.

Hori dena ikastetxeei dagokienez baina ez

zaigu ahaztu behar hezkuntzako langileak kudeatzeko sistema berriak (EIZU) eta gestio akademikoak kudeatzeko hezkuntzako aplikazio berriek etengabe egiten dutela "pott".

Aplikaziotik aplikaziora, zer esan LOMCeren aplikazioaren inguruan? Hemen ere, men eta amen. Kontra omen gaude denok, Heziberri gora, Heziberri behera, baina aplikazioa errealitate bat da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Batxilergoan Dekreturik gabe, aurtengorako ez dago jarraibiderik.

DBHko Dekretua 2016 hasieran atera bada ere, ez dakigu titulak nola emango diren, errealizadurik izango den, programazioak ez daude egokituak, ez dago irakasleen formakuntzarik ez eta formazioerako planik, ... Currikulum berrietara egokituak ikasmateriak ez dago, euskaraz are gutxiago (EKI proiektua izan ezik) eta are gutxiago digitalizatuak.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak agerian utzi du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Lanbide Heziketaren bidearen hautua egiten duten ikasleek euskaraz ikasteko aukera murriztagoa dute. Euskaraz Lanbide Heziketan duen presentzia ez dator bat Derrigorrezko Hezkuntzan duenarekin. Honi, ikasle hauek nahitaezkoak dituzten praktikak, euskaraz egin ahal izateko ezintasuna gehitu behar zaio. Hezkuntzak euskaldundu deza keena, lan munduak eraldundu egiten du.

Jaurlaritzak aitortu du, euskarazko irakaskuntzak Derrigorrezko Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan daukan pisuaren arteko aldea handiegia dela. Distantzia hau txikiagoa izan dadin, Lanbide Heziketan euskarazko irakaskuntza sustatu nahi dute. Nola? Asmoen artean, D erudia indartzea eta B erudia sortzea. Ditugun datuen arabera, Lan-

bide Heziketako zentro ugarietan D ereduko eskaintza murriztu egin da. Hau al da Administrazioak D erudia indartzeko duen proposamena? Ez dugu ahaztu behar, legealdi honetan, EAEko Lanbide Heziketako legea aurkeztu dutela, eta Legebiltzarra onartuz gero, B ereduaren sorrera finkatuta geldituko dela. Derrigorrezko Hezkuntzan ikasle gehienak eredu euskaldunetik datozela ikusita, ba al du zentzurik hizkuntza ereduaren formulak sakontzea, datu guztiek, eta administrazioak onartzen duenean ereduaren formulak ez duela behar beste euskalduntzen?

Matrikulaziorako erabiltzen diren baremazio irizpideek berriz, ez dute ikasleen hizkuntza hautua bermatzen, eta hainbatetan esaten zaie zentrotatik, D ereduko eskaintza ez dela gauzatuko. Beraz, kalean geratu nahi ez badute, gaztelaniaz ere matrikulatzeko aholkua jasotzen dute bertan. Autonomi Erkidegoaren Euskararen Erabilpenaren legeak zehazten duenez, ikasle guztiei, eskolak euskaraz hartzeko eskubidea onartu behar zaie. Gaur egun, eskubide hau ez dago Lanbide Heziketan bermatua. Administrazioak arduragabekeriaz jokatzen du beste behin ere, ikasle guztien hizkuntz eskubideak bermatu beharko litzukeelako, eta hau gauzatu dadin, beharrezkoak diren baliabideak ipini beharko litzukeelako.

Denborarekin erasoak pairatzen dituzten irakasleek kasuak goraka doaz. Hauek salaketa egiteaz haratago ez dute inolako erantzunik, inongo segurtasun bermerik. Langileen ordezkariok datuak ezkatzen dizkigu Administrazioak. Zergatik? Zer estali nahi du Hezkuntza Sailak? Eta erasoetatik hitzegiten gaudenez, zer asmo du Hezkuntza Sailak Zubietako erraustegiak erasotuko dituen 30

Km-ko erradio batean barnebiltzen diren 200 ikastetxeekin?

Aipatu behar da ere Heziketa Bereziko hezitzaileak 2003tik Lan Hitzarmenik gabe daudela eta hezitzaile hauen laguntza behar duten haurrei arreta emateko behar beste baliabide ez dela eskeintzen. Jangela zerbitzu apropos bat eskeintzen ez den bezela, izan ere, egungo jangela eredu agortuta dago, bai antolaketa zein funtzionamendu aldetik eta kolektibo honetako langileen lan baldintza prekarioak guztiz salagarriak dira.

Larunbatean atek ireki zituen BECek, atek ireki zituen Hezkuntza Sailak baina ez ditu leihoak itxi eta hezkuntzaren kalitateak etengabe egiten du alde leho hauetatik.

Has gaitzen bada etxea berrantolatzen eta berri eraikitzen. Has gaitzen hezkuntza herriaren eta hezkuntza komunitatearen beharizantara egokitzen. Has gaitzen euskal herritar gisa hezkuntzan ere ditugun eskubideak bermatzen. Eta garrantzitsua dena, goazen hezkuntza ikasle bakoitzaren beharizantara egokitzen. Kalkulo politiko, ekonomiko, partidistak... lurperatu eta egin dezagun apustu bizitzagatik. Egin dezagun apustu ikasleengatik, ikas-irakaskuntza prozesuaren erdigunean jarri, baita erabakietan, noski. Eta LAB horretan dago, bestelako hezkuntza eredu baten bidean urratsak ematen, alternatibak eraikitzen eta adostasunak lantzen. Finean, hezkuntzatik euskal estatua IRUTEN!

Iker Garin Santamaria, LAB irakaskuntza



**MEKA
LEKU
AKADEMIA**

iritsi da uda!

Udarekin iritsi da atseden hartzeko unea, eta horrekin batera **uztailari etekina ateratzeko momentua**. Meka Leku akademiak **udako ikastaro berriak** eskaintzen dizkizu, zuretzat egokituak, datorren ikasturtean emaitza onak erraz lortzeko.

• Zientziak



Mate, Fisika, Kimika

• Laguntza-eskolak



Irakurketa, Ulermena, Ortografia

• Ikasteknikak



Eskemak, Laburpenak

• Hizkuntzak

PET, FIRST, ADVANCE



Ingelesa, Euskara, Gazte

• Eta gehiago: gizarte, natur, mekanografia...



Zorionak gure
ikasle guztiei!!!

**Aurrea hartu
kurtso berriari!**

MEKA LEKU AKADEMIA • Ola kalea, 8 behea • Tel.: 943 37 31 95

irailetik aurrera...
ikasgela^{plus}